

III. ADITZ-IZENA (2)

Aurreko ikaskailan aditz-izenaren kasu batzuk ikasi ditugu: **-t(z)ea, -t(z)eak, -t(z)earen, -t(z)eari, -t(z)earekin...**

Orain, esanahi jakina duten beste kasu hauek ikasiko ditugu:

denborazko	-t(z)ean:	sartzean	- al entrar
denborazko	-t(z)erakoan:	sartzerakoan	- en el momento de entrar
adjetibo gisako	-t(z)ekoa:	harritzekoa	- extraño, "de extrañar"
asmo-baldintzazko	-t(z)ekotan:	sartzekotan	- idea/caso de entrar
motibatiboak,	-t(z)eagatik:	sartzeagatik	- por/para entrar
	-t(z)earren:	sartzearren	- por/para entrar

III.1. -T(Z)EAN, -T(Z)ERAKOAN DENBORAZKOAK

- Ezaguna duzun **-(e)nean** formaren ordean, **-t(z)ean** aditz-izena ere erabiltzen da batzuetan denbora adierazteko:

Ezkontzean, hobeto biziko zara = *Ezkontzen zarenean, hobeto biziko zara*
 Lagunak ikustean, ez joan ihesi = *Lagunak ikusten dituzunean, ez joan ihesi*
 Lana amaitzean joango naiz = *Lana amaitzen dudanean joango naiz*

- Zerbait, momentu zehatz batean gertatu dela adierazteko **-t(z)erakoan** forma ere erabiltzen da askotan (*cuando, al ir a...*):

Jaikitzerakoan zorabiatu zen - Al ir a levantarse se mareó
 Kalea pasatzerakoan erori zen - Se cayó cuando estaba cruzando la calle
 Sartzerakoan irristatu egin zen - Al entrar, resbaló

ARIKETAK

1. Forma ikasteko, jarri aditza **-tzean** forman:

Adibidez: Aita **etortzen denean** hasiko gara afaritan
 Aita **etortzean** hasiko gara afaritan

1. Ateratzen zarenean, ondo itxi atea.
2. Amaitzen duzunean, utzi platerak arraskan.
3. Semaforoa gorri jartzen denean, ezin da pasatu.
4. Zakurra ikusten dutenean, korrika hasten dira.
5. Iluntzen duenean, etxean sartzen gara.

6. Pelikula amaitzen denean, aurreko atletik irten, mesedez.
7. Zuek esaten duzuenean joango gara.
8. Lagunak ikusten dituenean, izugarri pozten da.
9. Bostak jotzen dituenean irtengo gara.
10. Kontserbak erosten dituzunean, begiratu ondo data.
11. Telebista pizten duzunean, itzali irratia.
12. Erosi diodana hartzen duenean, eskerrak emango dizkit.
13. Kristalak garbitzen direnean, kontuz ibili behar da.
14. Dutzatik irteten direnean, bustita uzten dute dena.
15. Uda datorrenean, Parisa joango gara.
16. Klasea hasten denean, isilik egon behar da.
17. Lan guztiak egiten dituzunean emango dizut dirua.
18. Uretan sartzen zarenean, ez busti ilea.
19. Erosketak egiten ditugunean, deituko dizut.
20. Eguna argitzen duenean jaikitzen gara.

2. *Euskaratu* (Aditza inpersonala denean, errazago erabiltzen da **-t(z)ean** forma):

- Kalea pasatzean, erne ibili behar da** - Al pasar la calle hay que andar atento
Uretan sartzean, poliki joan behar da - Al entrar en el agua hay que ir despacio

1. Al entrar en casa hay que dar los buenos días.
2. Al escribir a máquina se mira al papel, no al teclado.
3. Cuando se cambia el aceite, hay que tener el coche frenado.
4. Al darle a la pelota no hay que torcer la raqueta.
5. Al salir hay que cerrar la puerta.
6. Cuando se cruza la calle, hay que mirar a los dos lados.
7. Cuando se va de vacaciones, hay que dejar cerrada la llave del agua.
8. Al sentirse mal hay que llamar al médico.
9. Al terminar el trabajo hay que recoger las herramientas.
10. No está prohibido el baño, pero al salir del agua conviene ducharse.

3. *Bete itzazu hutsuneak, -t(z)erakoan* daraman aditza ipiniz:

1. Etxetik ... harrapatu zuten.
2. Atea ... , eskua harrapatu zuen.
3. Geltokira ... , maleta etxean utzi zuela konturatu zen.
4. Idazlana ... , ortografia ere kontutan izan behar da.
5. Helbidea ... , posta-kodea ere ipini behar da.
6. Argazkiak ... argiari kasu egin behar zaio.
7. ... ez da ahoa ireki behar.
8. Ohetik ... buruko mina sentitu nuen.
9. Izena ... matrikula ordaindu egin behar da.
10. Uretan ... ebaki bat egin zuen oinean.



1 Irakurgaia

BISTA ZORAGARRIAK

Mendizale handia zen Martxelo. Udazkenean hartzen zituen urtero oporrak, mendira joateko. Mendian bezain lasai eta pozik ez omen zen beste inon ibiltzen. "Hango bakerik ez dut beste inon aurkitzen", esaten zuen maiz. Urte batean Suizara joatea erabaki zuen. Eskalada egingo zuen han eta, bide batez, leku zoragarriak ikusiko zituen.

Lehenbiziko egunetan mendi errazetan ibili zen. Astebete pasatu ondoren, mendi gogorrago bat eskalatzea pentsatu zuen. Arriskutsuegia zen, ordea, hara bakarrik joatea eta, bada ezpada ere, bertako gidari bat hartu zuen, eskarmentu handiko eskalatzaile bat.

Goiz abiatu ziren hurrengo goizean, urruti samar baitzegoen mendi hura. Inguruetakoko bistak goratzen eta txalotzen pasatu zuen Martxelok bide guztia, suizarrari gusto emategatik edo...

—Bai leku politak —esaten zuen behin eta berriro—, zein ederrak diren!

Esandako mendira iritsi zirenean, eskalatzen hasi ziren berehala. Hasieran erraza zen igoera. Nahiko arin abiatu ziren arroketa gora, gidaria aurretik eta Martxelo ondotik. Gora igo ahala, ordea, gogorrago egiten zen aurrera egitea. Halako batean leku zabal batera iritsi ziren. Suizarra gelditu, Martxelogana jiratu eta honela esan zion:

—Arretaz ibili orain. Leku zaila da hau. Pausua ematerakoan gogor eutsi behar zaio arrokari...

—Lasai, gizona, ez naiz eroriko.

—Hobeto, bai, ez erortzea. Akabo bestela...

Pixka batean isildu, beherantz begiratu eta honela segitu zuen gero serio-serio:

—Hori bai, *erortzen bazara*, gogoan hartu hau: horko arroka handi horren parean pasatzerakoan begiratu eskuin aldera, izugarri bista politak ikusiko dituzu!

igo ahala: conforme iban subiendo

↔ a. Aurkitu testuan hitz edo esaldi hauen antzekoak:

atzetik	zailago	esperientzia	eder-ederrak!
harkaitz	kontuz	lehenbizian	buelta hartu

→ b. Erantzun:

1. Zenbat lagunekin joan zen Martxelo Suizara?
2. Zertara joan zen haraino?
3. Mendian gora zihoazela, zer esan zion gidariak Martxelori?
4. Erortzen bada, zer gertatuko zaio Martxelori?
5. Erortzen bada, den-dena txarra izango al da Martxelorentzat, gidariaren ustez?

→ c. Amaitu Martxelok eta gidariak arrokan gora doazela izandako elkarrizketa:

- Gidariak: —Hemendik aurrera
- Martxelok: —Bai, hala
- Gidariak: —Oso leku
- Martxelok: —Lasai, gizona, ez
- Gidariak: —Erortzen ba
- Martxelok: —Ezetz, bada, ez
- Gidariak: —Bai, baina, erortzen ba

→ d. Bete itzazu hutsuneak:

Suizara joan da Martxelo oporretara. Hotelera ... , gidari bat eskatu du. Mendi handietara ... asmoa du eta ez du bakarrik joan Gidari on baten izena eman diote hotelean. Telefonoz deitu dio Martxelok gidariari eta hau, eskaria entzunda, poztu egin da, aspaldi honetan lanik gabe baitzegoen. Hori bai, dirua bada ezpada ere aurretik kobratzen duela esan dio, abiatze...; izan ere, leku zailtan ibiliko dira eta jende asko geratzen omen da han betirako, arroketan behera erorita.



III.2-T(Z)EKOA

- **-T(Z)EKOA + IZAN** esaldiak gaztelaniazko *ser de + infinitivo*, *ser digno de + infinitivo* edo *adjetiboa* adierazten ditu:

Kontutan hartzekoa da	- Es digno de tener en cuenta, considerable
Ez da sinestekoa	- No es de creer, es increíble
Ikustekoa da, gero!	- Es digno de ser visto
Harritzekoa da	- Es de extrañar, extraño, raro
Eskertzekoa da	- Es de agradecer

Baina **asmoa** ere adierazten du maiz:

Bostetan etortzekoak ziren	- Eran de venir, pensaban venir, a las cinco
Bihar hastekoak gara	- Somos de empezar, pensamos empezar, mañana

ARIKETAK

1. Bete itzazu hutsuneak, parentesi barruko aditza erabiliz:

1. Orain arte inork ez du egin, baina ... dira denda horretan dituzten prezioak (salatu)
2. Gogoan ... dira hemen ikusi ditugun gauzak (hartu)
3. ... zen zirko hura; munduko artistarik onenek parte hartzen zuten bertan (ikusi)
4. Nik badakit barkatzen, baina zuk egin didazuna ez da ... (barkatu)
5. Eskaparateko koadroak apaingarri huts dira; ez dira ... (saldu)
6. ... da nolako lan polita egin duen zure alabak (ikusi)
7. Jai egunak aprobetxatu egin behar dira; ez dira alferrik ... (galdu)
8. Hasi eta utzi gabe ... da liburu hori (irakurri)
9. Berehala ... da haragi hori, hondatu egingo da bestela (jan)
10. Gordinik ... al dira fruta hauek? (jan)
11. Horren azkar bazabiltza, ez da ... egunen batean istripu bat izatea (harritu)
12. ... da gugatik egin duzun guztia (eskertu)
13. Zinera ... ginen gaur, baina berandu etorri naiz lanetik eta beste baterako utzi dugu (joan)
14. Auto berria ... nintzen, baina azkenean erabilia erosi dut (erosi)
15. Gaur goiz ... zen Roberto, baina ordulariak ez du jo eta hamarrak arte ez da esnatu (jaiki)
16. Aurten Londresa ... ziren, baina laguna gaixotu zaie eta etxean geratu dira (joan)
17. Honez gero lan berrian ariko da; aste honetan ... zen behintzat (hasi)